**Zuzeneko emakidaren prozeduraren bidez herriz kanpoko formazio ikastaroetara joateko garraio-gastuak ordaintzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak.**

**1. Xedea.**

Dirulaguntza hauen helburua familiei kanpoko formazio ikastaroetara joateko garraio-gastuak ordaintzen laguntzea da.

**2. Onuradunak.**

Laguntzen onuradun izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

2-1) Herriz kanpoko Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroren batean matrikulatuta egotea, formakuntza hori herrian eskaintzen ez den kasuetan, edota laneratzea sustatzera zuzenduta dagoen eta Euskal Enplegu Zerbitzuak (Lanbide) eskaini edo baimendutako ikastaroren batean.

2-2) Soraluzen erroldatuta egotea.

2-3) Familia eskatzailea ahultasun ekonomikoa eta bazterketa sozialerako arrisku egoeran egotea

- Familia bat ahultasun ekonomikoan eta bazterketa sozialerako arrisku egoeran dagoela ulertuko da bizikidetza unitatea osatzen duten pertsonen azken zerga-urteko diru sarrerek ez dituztenean ondoren aipatzen diren zenbatekoak gainditzen:

**Bases reguladoras para la concesión de subvenciones mediante el procedimiento de concesión directa para el pago de los gastos de transporte para asistir a cursos de formación impartidos fuera del municipio.**

**1. Objeto.**

El objeto de estas subvenciones es ayudar económicamente a las familias en el pago de los gastos de transporte para asistir a cursos de formación impartidos fuera del municipio.

**2. Personas beneficiarias.**

Podrán beneficiarse de estas ayudas, las personas que cumplan los requisitos siguientes requisitos:

2-1) Estar matriculado en algún centro de Educación Permanente de Adultos de fuera del municipio, siempre que dicha formación no se imparta en el municipio, o en algún otro curso formativo destinado a promover la inserción laboral, siempre que esté impartido o autorizado por el Servicio Vasco de Empleo (Lanbide).

2-2) Estar empadronado en Soraluze.

2-3) Que la familia solicitante se encuentre en situación de vulnerabilidad económica y riesgo de exclusión social.

- Se entenderá que una familia se encuentra en situación de vulnerabilidad económica y riesgo de exclusión social cuando los ingresos del último ejercico fiscal de las personas que componen la unidad convivencial no superen las cuantías que se indican a continuación:

| Familia unitatearen kideak Miembros de la unidad familiar | Errenta muga: urteko lanaren etekin gordinak edo beste edozein dirusarrerenzenbateko gordina<br><br>Límite de renta: rendimientos brutos de trabajo ó importe bruto otros ingresos /año |
|---|---|
| 1 | 15.400 |
| 2 | 20.160 |
| 3 | 22.624 |
| 4 | 25.521 |
| 5 | 28.855 |
| 6 | 32.689 |
| 7 | 37.096 |
| 8 | 42.166 |
| +1 | +7.150 |

**3. Dirulaguntzen zenbatekoa.**

Dirulaguntzen zenbatekoa izango da garraio publikoan eta argazkidun Mugi txartelarekin Soraluze eta ikastaroa eskaintzen den herriaren arteko joan-etorriak duen kostuaren hainbatekoa.

**4. Prozedura: epea, tokia, aurkeztu beharreko dokumentazioa.**

**Epea:** Eskabideak aurkezteko epea 2026ko maiatzaren 21etik 2027ko abuztuaren 31ra artekoa izango da.

**Lekua eta dokumentazioa:** Eskaria Soraluzeko Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuko da, horretarako Dirulaguntza eskaera normalizatua behar bezala beteta (Eranskina ikusi), bertan eskatzen den dokumentazioarekin batera aurkeztuko delarik.

Eskaera aurkeztu ondoren, eskatzaileak baldintzak betetzen dituela egiaztatuko da.

**5. Prozedura eta Ordainketa.**

**Prozedura:** Eskatzaileak aurkeztutako eskaeraren onarpena edo ukapena Alkatetzaren Dekretu bidez ebatziko da.

**3. Cuantía de las subvenciones.**

La cuantía de la subvención será igual al coste del trayecto entre Soraluze y el municipio donde se imparta el curso, utilizando el transporte público y la tarjeta mugi con foto.

**4. Procedimiento: plazo, lugar, documentación a presentar.**

**Plazo:** el plazo de presentación de las solicitudes será desde el 21 de mayo de 2026 y el 31 de agosto de 2027.

**Lugar y documentación:** La solicitud se realizará en el Registro General del Ayuntamiento de Soraluze presentado para ello el Impreso de solicitud de subvención normalizado debidamente rellenado (Ver anexo) con la documentación que se requiere en el mismo.

Presentada la solicitud, se comprobará que el solicitante cumple los requisitos exigidos.

**5. Procedimiento y pago.**

**Procedimiento:** La aprobación o denegación de la solicitud presentada por el solicitante será resuelta por Decreto de Alcaldía.

**Ordainketa:** Eskaera onartuz gero, Udalak pertsona onuradunari ordainduko dio dirulaguntzaren zenbatekoa.

Soraluze, 2026ko maiatzaren 21a.—Alkatea.

**Pago:** En caso de ser aprobada la solicitud, el Ayuntamiento abonará la cuantía de la subvención a la persona beneficiaria.

Soraluze, a 21 de mayo de 2026.—El Alcalde.

**SORALUZEKO UDALA**
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

**<u>LAGUNTZA ESKAERA:</u> *HHI/EPA edo LANBIDEren ikastaroetara joateko garraio-gastua***
*<u>SOLICITUD DE AYUDA ECONÓMICA:</u> Gasto transporte cursos EPA o LANBIDE*

***Eskatzailea /*** *Solicitante*

***Izen Abizenak /*** *Nombre y Apellidos:*

______________________________________________

***Telefonoa /*** *Teléfono:*____________________________***NAN/*** *DNI:* ______________________________

***Jakinarazteko helbidea /*** *Domicilio a efectos de notificación:*

______________________________________________

***Hizkuntza /*** *Idioma:* ***Euskaraz*** ☐ ***Elebietan/****Bilingüe* ☐

***Kontu Zenbakia /*** *Número de Cuenta:* ______________________________

***Ikastetxea /*** *Centro*

***Izena /*** *Nombre:* ______________________________

***Herria /*** *Localidad:* ______________________________

***<u>AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK /</u>*** *<u>Documentación necesaria:</u>*

-**Indarrean dagoen urteko diru sarreren egiaztagiriak** / *Justificantes de ingresos económicos del año vigente:*

***Gizarte laguntzen jasotzailea / Perceptor de ayudas sociales (RGI, AGI): Gizarte Zerbitzuen eskura dauden zerrenden bidez egiaztatuko da.***
*Se comprobará con los listados de los Servicios Sociales.*

***Langilea*** / *Trabajador/a:*
*Errenta Aitorpena* - Declaración de la Renta

***Langabetua*** / *Parado/a:*
*LANBIDE-INEMek luzatutako urtean jasotako diru sarrerei buruzko ziurtagiria*
**Certificado de LANBIDE-INEM indicando los ingresos percibidos en el año**

***Pentsioduna*** / *Pensionista*:
*Pentsio Ziurtagiria* - Certificado de pensiones

***Beste egoera batean (laguntzarik gabe, Caritas…)*** / *Otra situación (sin ayudas, Caritas…):*
*CARITASek luzatutako urtean jasotako diru sarrerei buruzko ziurtagiria*

*Certificado de Caritas de las ayudas percibidas en el año*

- **Ikastetxean aurre-izena emanda dagoenaren ziurtagiria /**Certificado de estar prematriculado en el centro.

***Oharra: Familia unitatearen diru sarrera guztiak izango dira kontutan, horretarako Udalak berak familia unitatearen osaera egiaztatuko du.***

***Nota: Se tendrán en cuenta los ingresos de todos los miembros de la unidad familiar, para ello el propio Ayuntamiento comprobará la composición de dicha unidad familiar.***

***ESKATZAILEARENSINADURA /*** *Firma del solicitante:*

Santa Ana, 1 • SORALUZE (20590) • Tfn.: 943753043 • Fax: 943753112 • udala@soraluze.eus • www.soraluze.eus

**DATU PERTSONALEI BURUZKO INFORMAZIO KLAUSULA**

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (DBLO-EDB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (DBEO) eta datu pertsonalak babesteko gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorriz, jakinarazten da emandako datuak SORALUZEKO UDALAk tratatuko dituela eta haren Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko direla.

Tratamendu horren helburua, deialdiaren interes publikoan eta parte hartzeko eskabidean oinarritua, eskatutako laguntzaren espedientea kudeatzea da. Datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa da SORALUZEKO UDALAk duen interes publikoa eta SORALUZEKO UDALAri indarrean dagoen araudiak ematen dizkion eskumenak betetzeko.

Informazio hori gaian eskumena duen beste Administrazio Publiko bati laga ahal izango zaio araudiak horrela aginduz gero.

Espediente hau izapidetzen den bitartean eta legez eska daitekeen epean gordeko dira datuak, legezko betebeharrak bete ahal izateko.

Interesdun guztiek eskubidea izango dute datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunari aurka egiteko edo tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko, bai eta datuak babesteko araudi aplikagarrian aurreikusitako beste edozein eskubide ere, eskubide horiek aplikagarriak direnean, honako helbide elektroniko honetara idatziz bidalita (udala@soraluze.eus).

**INFORMACIÓN BÁSICA DE PROTECCIÓN DE DATOS**

De conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales («LOPD-GDD»), así como en el Reglamento (UE) 2016/679 General de Protección de Datos del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 («RGPD») y demás normativa aplicable en materia de protección de datos de carácter personal, se informa de que los datos facilitados serán tratados por SORALUZEKO UDALA e incorporados en su Registro de Actividades de Tratamiento.

La finalidad de dicho tratamiento, basado en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación, es gestionar el expediente de la ayuda que se solicita, siendo la base jurídica por la que se tratan los datos personales, el interés público que SORALUZEKO UDALA ostenta en cumplimiento de los fines establecidos por la legislación en vigor.

Dicha información podrá ser cedida a otras Administraciones Públicas por disposición legal.

Los datos serán conservados durante la tramitación de este expediente y durante el plazo legalmente exigible con el objetivo de poder cumplir con las obligaciones legales.

Todas las personas interesadas pueden ejercitar los derechos de rectificación o supresión, limitación del tratamiento, oposición, a la portabilidad de los datos o a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, así como cualesquiera otros previstos en la normativa aplicable de protección de datos, cuando dichos derechos sean aplicables, a través de comunicación escrita a la siguiente dirección de correo electrónico (udala@soraluze.eus).